

## UZEI-ren Hiztegi berria: ZUZENBIDEA

*(Martxoak Igoetan Deustuko Unibersitatean inakurritako aurkezpena)*

Arratsaldeon denoi:

Gaur hemen bilduta gaude UZEI-ren emaitza berria ezagurazteko: ZUZENBIDEA Hiztegia. Izan ere, UZEI-k orain dela bederatzirenean hasi zuenetik haxe baita bere azken fruitua. Eta guri, juristoi edo legelarioi dagokigun aldetik, pauso garrantzitsua dela esan daiteke. Bertan, juristok eta UZEI-k euskararen normalizaziorako dituen alor guztietako espezialistek, elkarrekin lan egin dugulako, aspertzeke, azken hiruzpalau urte luzeotan, zuzenbidearen mundua euskaraz emateko.

Kaleratu berria dugun obra hau, UZEI-ren sistematikaren arabera bi liburutan banaturik dago:

A) Lehenean, artikulatu tematikoak daude: Hiru mailatako artikulatuok: orokorrak, konkretuagoak eta definizio soilak. Eranskin gisa ere, eta Eusko Jaurlaritzaren «I.V.A.P.» (Instituto Vasco de Administración Pública) delakoarekin batera imprimatu ki batzuk (Udaletxetakoak batipat) kokatu dira bertan, egunero ko bizitzan edozeinek dituen preminei erantzuteko asmoz.

B) Bigarrenean, oster, hiztegi terminologiko hutsa edo bederen hiztegi klasikoa dator, denok ezagutzen dugun eratakoa:

Euskara/Espainera/Frantsesa: 10.036 sarrera

Espainera/Euskara: 6.439 sarrera

Frantsesa/Euskara: 6.860 sarrera

Egitura bikoitza du, beraz, hiztegi honek:

1) **Tematikoa:** Hemen, besteak beste, eta ordenamendu juridikoaren batasuna ahanzi gabe, zuzenbidearen adar nagusiak azaldu dira artikululu luzeetan, hala nola Zuzenbide zibila, Penala, Administratiboa, Merkatal zuzenbidea, Euskal Zuzenbidea eta abar luze bat, beren erakunde, arau eta legeekin. Honekin batera ere, erredaktoreek, konzeptu bereziei dagozkien artikululu laburragoak egin dituzte, esaterako, salerosketa, komunikazio forala... berauetan konzeptu hauen esanahi juridikoa sakontzeko. Eta azkenez, gradazioaren hirugarren mailan, zuzenbidearen erakundeen definizio hutsak.

2) **Terminologikoa:** Euskarazko hitz zerrenda, gaztelerazko eta frantsesazko ordainekin emana dator, mundu juridikoan ohizkoen diren berba eta termino juridikoak euskaraz nola adierazten diren ezagutu ahal izateko. Horretarako, euskaraz eta batez ere, espainieraz zegoen guztia (edo ia guztia) arakatu dugu, legeak hustu eta askotan euskaraz (Zuzenbide forala dela eta) aurkitu dugun apurra ere (denok dakigunez, euskaraz izugarriko tradizio juridikorik eza jasan baitu) erabili egin dugu. Bigarren atal horretan bereziki aritu gara erderazko berba askoren polisemia juridikoa euskaraz ongi ematen. Hitzez hitzezko itzulpena egin beharrean eta bere jatorrizko sentidu juridikoa bertxatu gabe, berba bakoitzari, ahal den neurrian, euskarazko ordaina eman zaio.

Adibidez

*Erderaz:*

Otorgar (arrunta) = eman.

Baina

Otorgar (Kontratu bat notari aurrean): egiletsi.

*Erderaz:*

Autorización (Ahalmen-ematea) = Eskuespen.

Autorización (Permiso) = Baimen - Haizugo - Zilegidura.

Lehen esan dugunez, hau guztiau talde baten lana izan da:

UZEI-ko espezialista linguistikoak batetik eta jurista euskaldun multzo bat bestetik aritu gara, aurretik zeuden esperientziak biltzen, soluzio berriak asmatzen eta azken finean, zuoi, juristoi eta zuzenbide ikasleoi, gero liburu hau eskuartean erabili-ko duzuen legegizonoi bideak *proposatzen*.

*Proposatu* esan dut, hauxe baita hiztegi honen sentidu eta gogorik biziena: mundu juridikoan aritzen diren guztioi lanabes baliotsa eskeintzea, euskararen normalizazioak eskatzen duen arabera, gure hizkuntzaren presentzia bere baitan haunditu dadin eta baita ere gure eguneroko lanean euskaraz iharduteko ditugun arazoei aurre egiteko gai izan gaitezen.

Zeren inon beharrezkoa bada euskararen presentzia, ez da bakarrik maiz entzuten dugun «Administrazio» famatu horretan baizik eta geuk, jurista praktikook (eta teorikook) ezagutzen dugun mundu juridiko zabalago horretan. Hemen eskaerak eta eskaintzak betidanik desorekaturik egon dira eta daude. Egun Estatutoak eta legeak markatzen duten euskararekiko hildoari, edozein Administrazio Publikotik hamaika oztopo jartzen zaiola ikusten dugularik, geure lana euskaraz egiteko posibilitadeak zabaldu behar ditugu. Batez ere, euskarak, inolako tradizio juridikorik izan ez duen mintzaira geuretar honek, bere normalizazioa lor dezan.

Ez da nahiko «ofiziala» edo «propioa» izatea. Ofizialtasun horrek aplikazio praktikokoak eskatzen ditu. Eta aplikazio praktikokoak denon aldetik. Gobernu Zentraletik, Eusko Jaurlaritzatik, Legebiltzarretik, Tribunaletatik eta geure partetik ere, jurista eta euskaldunok garen aldetik. Hau barik, euskarak berea egin du eta berarekin batera euskaldunek ere.

Eta honetara datoz bi liburu lodikote hauexek: mundu edo eremu juridikoan lehen aldiz oinarri juridiko eta propioak euskaraz jartzera, hau da, lehen pauso kualitatiboa ematera Zuzenbide mailan. Halare urrats hau ez da borobila, itxia. Aitzitik, hiz-

tegi honen alde onez eta exkasez jabetzen gara. Baina hiztegi honek ere beste errialitate berri batzuen aintzidaria izan nahi du: bere geroan Fakultateko apunteak, klaseak, textuak, epategietako demandak, Udaletxetako ziurtagiriak, testamenduak, eskriturak eta abar euskaraz ikusi nahi ditu. Ametsak? Utopia ote? Bali-teke. Baina hemen dugu hasiera eta sustraia. Berau lantzea ala ez geuk erabaki beharko dugu.

Bukatzeko, halabaina, zera esan nahi nizueke: denok ondo dakigunez, zuzenbidea eta gizartea loturik datoz. Gizarteak, halare, aldaketa erakartzen du. Eta aldaketa izugarri eta arin hauexei erantzun behar die zuzenbideak. Egun euskal gizartean dugun egin behar preminatsu bat euskararena dela uste dut. Horrexegaitik, agian, Hiztegi honen balioa bere ihardueran demostratu egin beharko dugu jurista euskaldunek. eta esperientziak bildu, hurrengoan hobegotzeko eta Oihenarte-k gure jurista zuberotar eta euskaldunak esan zuenez, errakun zahar hura betetzeko:

«Nori berea da zuzenbidea».

Asmo hauek errealitatea bihurtzeko prestatu digun erraminta paregabe honexegatik UZEI-ri eskerrak ematea eta zuoi, juristoi, obra hau erabiltzera bultzatzea besterik ez zait gelditzen.

*Eskerrik asko*

*A. Urrutia*